

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 616/2016 Erabakia, irailaren 27koa, onartzen duena hutsen zuzenketa bat egitea abuztuaren 3 ko 499/2016 Erabakiari, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren zerbitzura dauden funtzionarioen plazen 2016rako enplegu eskaintza onartu zuenari

Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 499/2016 Erabakiaren bidez, onartu zen Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren zerbitzura dauden funtzionarioen plazen enplegu eskaintza 2016rako.

Ikusi da erabaki horren eranskinaren edukian, sailkapen taldeei dagokien zatian hain zuzen, taldeen definizioa ez dela osoa, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu publikoaren oinarriko estatutuaren Legearen testu bateratua onartzen duenak, hirugarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera.

Horregatik, erabaki horren eranskinean taldeari egindako aipamena honela geratu behar da:

A taldea: A1 azpitaldea

B taldea: A2 azpitaldea

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta bat etorri ondoren aipatzen diren foru dekretuek ezarritakoarekin: Diputatu Nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituena, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretua, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezartzen dituena, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretua, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duena, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea hutsen zuzenketa egin dadila Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 499/2016 Erabakian, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren zerbitzura dauden karrerako funtzionarioen plazen 2016rako enplegu eskaintza onartzen duenean.

Bigarrena. Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 499/2016 Erabakiaren, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren zerbitzura dauden funtzionarioen plazen 2016rako enplegu eskaintza onartzen duenaren, eranskinean taldeari egiten zaion erreferentzia honela geratuko da:

A taldea: A1 azpitaldea

B taldea: A2 azpitaldea

Hirugarrena. Erabaki hau eta bere eranskina ALHAOn argitaratzea, eta honen laburpena EHAAn.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

ERANSKINA									
TALDEA AZPITALDEA	ESKALA, AZPIESKALA ETA KLASA	PLAZA	SISTEMA IREKIA				BARNE SUSTAPENEKO SIST.		GUZTIRA
			TXANDA OROKORRA		EZINDUENTZAT GORDETAKO KUPOA		TXANDA OROKORRA		
			DDGHE	DDGHE	DDGHE	DDGHE	DDGHE	DDGHE	
A	11 AO-T	Administrazio Orokorreko teknikariak	5	4	--	1	--	--	10
		Ekonomia-Enpresa zientziak	3	4	--	1	--	1	9
	211 AB-T-GMT	Zuzenbidea	5	4	--	1	1	1	12
		Arkitektoa	--	4	--	--	--	--	4
		Bide, ubide eta portuetako ingeniaria	--	--	--	--	--	1	1
		Nekazaritzako ingeniaria	1	--	--	--	--	2	3
	221 EGITEKO BEREZIAK	Zerga ikuskatzailetza	2	1	--	--	--	3	6
		Antolaketa	4	--	--	--	--	--	4
		Arkitekto teknikoak	2	1	--	--	--	2	5
		Nekazaritzako ingeniari teknikoak	4	7	--	1	1	1	14
B	212 AB-T-EMT	Basogintzako ingeniari teknikoak	3	--	--	--	2	5	
		Topografiako ingeniari teknikoak	1	1	--	--	--	1	3
	221 EGITEKO BEREZIAK	Bibliotekonomia eta dokumentazioa	--	--	--	--	2	2	
			30	26	--	4	4	14	78

LABURTZAPENAK:

DDGHE: DERRIGORTASUN DATADUN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA
 DDGHE: DERRIGORTASUN DATARIK GABEKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

ESKALAREN KODEAK:

11: ADMINISTRAZIO OROKORRA - TEKNIKARIAK
 211: ADMINISTRAZIO BEREZIA - TEKNIKARIAK - GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
 221: ADMINISTRAZIO BEREZIA - ZERBITZU BEREZIAK - EGITEKO BEREZIAK
 212: ADMINISTRAZIO BEREZIA - TEKNIKARIAK - ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA